

EUSKARALDIA
2.EDIZIOA



ARAMAIOKO EUSKARALDIA

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra



ARAMAIXO
bizi

ENTITATEAK:

ZER DIRA? ZEINTZUK?

udala, eskola, enpresak, kultur eta kirol elkarteak, gastronomikoak...

ZERGATIK PARTE HARTU?

Euskararen erabilera da helburua: lanean, gizartean, etxean, lagunekin, kalean... guztiok inplikatzeko beharrezkoa da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZA:

Ohiko funtzionamenduan euskara erabiltzea, barrura begira eta baita kanpora begira, zerbitzua ematen denean: barruko bileretan, lankideen artean, bezeroekin...

NOLA PARTE HARTU?

1. Kide guztion artean adostu eta ariguneak definitu.

ARIGUNE: EUSKARAZ LASAI ARITZEKO GUNEA.

Arigune bakoitzeko kide guztiek euskara ulertu behar dute, bai Belarriprest edo Ahobizi bezala.

Eta konpromisoa hartu euskaraz funtzionatzeko.

2. Barne edota kanpo ariguneak definitu:

Barne-ariguneak: Entitate baten sailak, ekipoak, taldeak, zerbitzu zehatzak... Bertako kide guztiek euskara ulertzeaz gain, kideen % 80 gutxienez ahobizi edo belarriprest izango da.

Kanpo-ariguneak: Herritarrekin harreman zuzena duten barne taldeak dira: tabernako barrako langileak, leihatilan lana egiten dutenak, harrera guneetakoak, dendariak... Kasu hauetan beti bermatu behar da ahobizi edo belarriprest den norbait egongo dela, euskarazko zerbitzua emateko.

IZENA EMATEKO EPEA: IRAILAK 27

www.euskaraldia.eus

